

↻ Hizpide ↻

Lore batzuk eta oztopo latz samar bat

FERNANDO MORILLO

Idazlea-editorea



Topikoei heltzea izaten da, oro har, biderik errazena. Lore batzuk jaurti, irribarre sorta bat erakutsi, eta etxera itzuli. Polita baina eragingabea.

Euskal-literaturaren baitan, badira harro egoteko moduko paisaia eder batzuk. Duda izpirik gabe. Baina badugu, aldi berean, amildegi larri bat albo-alboan. Esango nuke ahal bezain pronto eta ahal bezain indartsu heldu behar geniokeela konponbideren bati (edo batzuei), zulo berberetan ibiliko ez bagara hemendik 20 urtera, jira eta buelta.

Dakidan bezain argi azaltzen saiatuko naiz nire kezka.

Gaztetxea nintzela, irakurzale amorratua nintzen. Fikzio zientifikoa, fantasia, abentura, misterioa... Irakurzale askotxoren gustu bera neukan. Baita pena bat ere:

halako liburuak euskaraz bilatzen nituenean, ezer gutxi aurkitzen nuen. Bakanen bat baino ez. Itzulpen saiaturen bat edo beste, baina ni nintzen gaztearentzat gehienak zail samarrak ziren irensten.

Orduan pentsatu nuen euskaraz gutxi irakurtzearen arrazoi nagusia (nirea eta beste hainbatena) liburu falta zela. Ondorio logikoa zirudien.

Euskara hizkuntza zoragarria iruditzen zitzaidan, garai hartan orain bezalaxe. Hizkuntza jostaria eta ezustez betea, malgua eta anizkoitza. Sentimentalki ere harrapaturik nindukan euskarak, eta bihotz kontuetan ezin kontra egin. Horregatik bilatzen nituen misteriozko lanak euskaraz. Edota dibulgaziozkoak. Bihotzaren hizkuntza horretan gozatu nahi nituen liburuak, baina, esan bezala, zaila egiten zitzaidan gustuko gaiak aurkitzea. Ulertzekoa zen: urteetan debekatua egon ondoren, apurka-apurka baino ezin zuen aurrera egin.

Urteak joan ziren, eta hutsik zegoen gela hura betetzen joan zen. Orain, hainbat eta hainbat lan ditugu euskaraz, ia imajina daitezkeen gai guztien inguruan, itzulpen bikain ugari eta jatorrizko istorio nahikotxo. Espektroa zabaldu egin da, zabaldu. Eta osatu eta koloreztatu.

Gazte asko-askorekin hitz egiteko aukera izan dut azken hamabost urteotan. Ehunka topaketa izan ditut askotariko ikastetxe eta kultur gunetan. Izugarri ikasi dut, ikasleengandik, irakasleengandik. Hasieran, haiekin guztiekin hitz eta pitz aritzen nintzenean, pentsatzen nuen gazte haiek sekulako zorte ona zutela: guk ez bezala, ia nahi zutena irakurri zezaketen. Ez bakarrik aukeraren zabalagatik, kalitateak ere nabarmen egin zuen gora, zentzu ugarian: izan edizio erakargarriak, izan askotariko gaiak, erritmoak eta ahotsak.

Aurkitzen joan nintzen emaitza ez zen, ordea, nik aurretik imajinatua. Ustekabean ustel eta nahigabe bihurtu zitzaizkidan uste eta nahi ugari.

Gazteek gutxi irakurtzen al dute orain?

Bi ñabardura galdera horri erantzuteko. Bat, berehala: hizkuntza zehaztu behar. Bigarren ñabardura: liburuez ari gara. Izan ere, esango nuke irakurri, inoiz baino gehiago irakurtzen dela, baina bestelako euskarri batzuk direla iturri nagusiak: sakelakoak, tabletak, ordenagailuak, Internet...



Haur- eta gazte-literaturaz ari ginen, ordea. Eta hizkuntza zehaztu nahi genuen. Gazteek literatura gutxiago irakurtzen al dute, esate baterako, gaztelera? Ziur asko, bai: mundua aldatu egin da, gaurko gazteek hamaika arretagune dituzte aurrekook ez genituenak. Normala litzateke.

Edonola ere, makina bat gazte ezagutu dut ni nintzena bezain irakurzale direnak. Eta hor dator koskaren ertz zorrotz eta gordina: ia-ia-ia beti, gaztelera irakurtzen dute. Euskal gazteez ari naiz, askotan familia euskaldunekoak, eta egunerokotasunean euskara hutsez (edo) bizi direnak. Txiki-txikitatik euskaraz ikasi dute, giro euskaldunetan hazi eta hezi dira... baina, salbuespen urriak salbuespen, liburu bat benetan «gozatzeko» erdarara jotzen dute behin eta berriz.

Sarritan galdetu izan diet: zergatik erdara? Zer lortzen duzue erdaraz, eta euskaraz ez? Beste behin gogoratu nahi nuke giro euskaldunetz ari naizela. Besteetan ulertzekoa litzateke hautua, noski.

Askotariko argudioak entzun ditut: gaiak ez zaizkiela iristen, (erdarakoekin baino are gehiago) aspertzen direla...

Arrazoiak arrazoi, esango nuke funtsean bestelako sustrai-ama bat datzala horien guztien azpian: **zaila(goa) egiten omen zaie, dexentez, euskaraz irakurtzea (nahiz eta betidanik euskaraz bizi izan, nahiz eta betidanik euskaraz ikasi!)**. Erdaraz arazo berezirik gabe sartu omen daitezke istorioan, euskaraz ez bezala. Horrek, jakina, eraikin oso baldartu eta sekulako oztipoa eragiten dio. Zioak bilatzen hasita:

Litekeena da ohiturarik ezagatik izatea. Jasotzen dugun informazio eskergaren zati zabal bat, nahitaez, hizkuntza «handiagoen» bitartez iristen da: gaztelera, frantsesa, ingelesa... Nahiz eta hartzaile (irakurle, entzule...) horietariko asko euskal giro peto-petoan bizi izan.

Beste arrazoi bat hizkuntza bera izan daiteke. Euskara zailagoa da? Zailago azaltzen dugu, beharbada? Lehen galderari ezezko biribilaz erantzungo nioke. Euskara baino hizkuntza malgu eta jostagarriagorik!

Orduan?

Hipotesiak botatzen hasita, euskara «agurea» izan arren, egiten dihardugun hizkuntza ere bada, zenbait eragin historikorengatik. Beharbada, ez ditugu oraindik behar bezain





estu ezkondu euskara bizia (erreala, erabilia, kalekoa) eta «kultua» (erdi akademikoki, goitik-edo egina). Egin diren aldaketak eta egokitzapenak, agian, ez dira oraindik gehiengoaren (herriaren, hizkuntzaren benetako erabiltzaile eta sortzaileen) galbahetik igaro. Xabier Amurizak dioen moduan, hizkuntza ez du eliteren batek osatuko, herriaren gehiengoak baizik. Bat nator. Egoera guztietara egokitu behar ditugu euskarak berez dituen baliabideak. Hitzekin lanean dihardugunon ardura da (irakasle, idazle, kazetari...).

Literaturaren piramidea

Beste hipotesi bat: ez da irakurlerik gabeko literatura osasuntsu bat osatzerik.

Jo dezagun literatura piramidea dela. Piramidearen tontorrera ailegatu nahi badugu, ezinbestekoa da oinarri sendotik abiatzea. Sendo eta ahal bezain zabaletik. Euskarak irakurleak behar ditu. Irakurle asko, askotarikoak. Orain dituenak baino askoz gehiago. Gutxi garela esatea errukizko gezurra baino ez zait iruditzen: milaka gazte sartzen dira euskal ikastetxeetan urtero. Lortuko bagenu haietako gutxi batzuk gehiagok

bada ere literatura gozatzea, irakurle «berriak» izango lirateke. Baina errealitatearen gordinak oihukatzen du irakurle izan litezkeenak ez direla. Edo ez euskaraz behintzat.

Familian bertan bizi izandako bizipena kontatuko dut laburrean. Irakaspen eta esperientzia zeharo interesgarria izan da niretzat.

Frankismoaren garaian bizi ziren familia askotan bezala, gure amak eta haren ahizpa zaharrak ezer gutxi ikasteko aukera izan zuten. Izebak irakurtzen ere ez zekien, gure amak ozta-ozta. Izebak hizkiak ikasi zituen lagun batekin, eta amarekin batera, eskura zituzten liburuak irakurtzen hasi ziren.

60 eta 70eko hamarkadetan, kiosko-nobelak ugaritu ziren gazteleraz: ekintzaz beteriko liburu laburrak, edizio aldetik kaskar samarrak eta formatu oso txikikoak, baina merkeak, xumeenek ere erosteko modukoak. Nobelatxo poliziakoak, misteriotsuak, fantastikoak, sentimentalak, umorezkoak... Irakurle ugarirentzat erakargarriak izan zitezkeen istorioak ziren betiere. Sekulako arrakasta zuten.

Horiek irakurtzen abiatu ziren, ba, ama eta izeba. Irakurtzeko ohitura





hartu, eta liburuxka haietariko dozenaka eta dozenaka irenstera eram zituen irrikak. Irrikak! Gaur, urte dexente joan ondoren, biak dira ezagutzen ditudan irakurle amorratuenetarikoak. Izebak ezingo lituzke bost hitz jarraian idatzi, baina zailtasunik gabe irakurtzen (eta gozatzen!) ditu, besteak beste, saiakera politikoa eta poesia. Amak, berriz, makina bat nobela irakurtzen du urtean: astean bat gutxienez, urtean erraz asko 50etik gora.

Garai haietako kiosko-nobela haiek ez zuten helburu literario «handirik» (nolabait esatearren, zinez handia iruditzen baitzait ira-

kurleen arreta bairatzea eta magiazko hari batzuetan bildurik izatea). Irakurleek grinaz irakurtzea lortzen zuten, horixe zen haien bereizgarririk behinena. Eta liburu bat bestearen atzetik bizi ahala, irakurle haietarik askok denetariko estiloetara joan ziren igarotzen. Apurka, literaturaren piramidearen zeinahi puntu hauta zezaketen. Ez zuten mugarik ohiturarik eza edo ulermen aldetik. Nahi zuten esparruan goza zezaketen.

Miraria iruditzen zait, mirari gogoangarria eta ederra. Irrika eta pasioa dira motibaziorik indartsuenak: eskutik eramaten gaituztenean, ez da malkarrik inongo gailurrerantz.

Ama-izebarena aipatu dut, baina halako hamaika adibide ezagutu izan ditut. Giro euskaldunetan bizi naiz, euskaldun eta euskaltzalez inguratua. Euskaltzale horien artean ere irakurzale amorratuak aurkitu ditudanean, gehien-gehien-gehienetan erdaraz irakurtzen dutela aitortu didate. Liburu bakanen bat euskaraz, euskara maite dutelako, eta ondoren, bizitza «normalean», erdaraz. Ikusiak ikusi, gazteenen artean ez da ezertxo ere aldatu.

Irakurleak ereiten

Gaurko gazteei tiraka aritzen naizenean, euskal literaturaz galdetzen diedanean, horiexek dira gehien-gehienetan falta zaizkidan hitz magikoak: irrika eta motibazioa. Eta pena izugarria hartzen dut.

Literaturaren piramidearen goiko erdia distirantea eta boteretsua da: poesia, estiloa, aberastasuna, forma, mezua, sinbolismoa...

Galdera bat, ordea: dasta al ditzake gaztetxo batek ardoak gordetzen dituen zapore-oihartzun guztiak? Edo kafe beltzak dituenak, tearen zeremoniak, Mozart-en Don Giovannik, Tiziano zaharraren autoerretratuak, Atenasko Partenoaiak? Nekez. Esperientzia anitzak baino ez dio erakutsiko horiek hobeto eta sakonago miresten. Gozatzen.

Piramidearen beheko erdia elikatu gabe, gainekoa eta gainerakoa simulakro hutsa liteke. Autoengainu antzua.

Badakit erraza dela hemen idatzitakoaren kritika (erraza, errazegia) egitea, tarteka iritsi izan baitzaizkit





halakoak: «Zer da hortaz bultzatu nahi dena? Errazkeria? Arinkeria? Kalitaterik eza?».

Beste galdera bat egingo nuke: benetan nahi ditugu irakurleak? Denetariko irakurleak? Hamaikagarrenez errepikatuko dut nire susmoa: irakurlerik gabe, bazter-trenbide batean gabilta. Irakurleek neurrigabe erregutu didatena gainerako kulturetako irakurleek eskatzen dutenaren oso antzekoa da. Azken batean, inguruko hizkuntza «boteretsuen» liburu irakurrienen zerrenda guztietan azaltzen direnak bezalakoak. Oinarririk hasita egin nahi dute gora.

Kiosko-nobeletara itzulita, gurean ez da apenas izan halakorik, ez behintzat inguruko beste literaturetan egon diren (eta dauden) neurrian. Niri premia larria iruditzen zait: irakurle izan daitezkeen gazte horiek pasioz seduzitzen ez baditugu, alferrik izango da errepikatzea testu bat bikaina dela, edo klasikoa, edo ezinbestekoa. Arrazoi hutsak ez du sekula bide hori amaitzerik izango. Piramidea zorrotzegia, altuegia izango litzateke. Eta hasierako balizko irakurleak, ondorengo irakurle galduak.

Aunque me duela decirlo, la literatura vasca tiene un grave déficit de lectores. Justificar la carencia arguyendo que somos pocos me parece una mentira piadosa. Pese al cerca de un millón de hablantes y los miles de jóvenes que inician cada año sus estudios en euskara, el número de lectores apenas ha aumentado más allá de la obligatoriedad escolar.

Entre las posibles razones, tal vez haya que mencionar una extraña situación de nuestra literatura vasca: lleva años creando obras de gran profundidad y fuerza poética, mientras que ha trabajado en mucho, muchísimo menor grado la literatura popular, la literatura de calle.

Como contrapunto, he conocido casos muy cercanos de personas que, durante el franquismo, no pudieron estudiar ni lo más básico, pero que con tesón aprendieron a leer por su cuenta (en castellano). Poco a poco, «suscumbieron» a la literatura de kiosco de entonces. Ahora, aun sin estudios, disfrutan leyendo (¡devorando!) poesía, ensayo o novela.

Opino que eso nos ha faltado en vasco: la literatura de kiosco, directa y sencilla, de aventura, intriga, humor o romanticismo. Literatura como adicción, que convierte en hábito placentero la lectura y que lleva al lector a serlo más y mejor sin darse cuenta.

Although it pains me to have to say it, Basque literature is seriously short of readers. Justifying the lack by arguing that there are few of us strikes me as being economical with the truth. Despite speakers numbering nearly one million and youngsters who commence their studies in Basque every year numbering the thousands, the number of readers has barely increased beyond what is compulsory at school.

Among the possible reasons, one might have to mention a strange phenomenon in our Basque literature: for years it has been producing works of great depth and poetic strength, while it has worked to a much, much lesser extent on popular, everyday literature.

In counterpoint to this, I have known cases very close to me of people who during the Franco dictatorship did not have the chance to study even the most basic; yet they doggedly learnt to read on their own (in Spanish). Little by little they «succumbed» to the cheap literature at that time. Now, even without much education, they enjoy reading (devouring it) poetry, essays or novels.

I think that is what has been missing in Basque: direct, simple cheap literature about adventure, intrigue, humour or romanticism. Literature to get hooked on, which turns reading into an enjoyable habit and helps the reader become more and better without realising it.

Traslated by Sarah J. Turtle

Zenbait iritzi euskal HGLren orainaz eta geroaz

MANU LÓPEZ GASENI
Irakaslea-Idazlea-Itzultzailea



Behinola aldizkaritik hainbat galdera igorri dizkidate, arloko beste zenbait eragilereri bezala, euskal haur-eta gazte-literaturaren egoeraz neure iritzia emateko, neure lan-eremutik emateko hain zuzen ere. Ez dakit antzeko iritziak errepikatuko diren, diagnostikoan bat etorriko garen; edonola ere, noan harira, atalak eskatutakoari zuzen-zuzen lotzen ez bazaizkio ere.



Euskal HGLn azken urteotan gertatutako aldaketei buruz, esan daiteke gehienak merkadoteknia-kontuak izan direla. Azpimarragarrienak, nire ustez, segidan aipatzen ditudanak dira (informazio gehiago nahi duenak Xabier Etxanizekin batera argitaratutako *XXI. mendearen hasierako haur- eta gazte-literatura* liburura jo dezake).

Alde batetik, bildumetako dibertsifikazioa handitu egin da, bereziki gazte-literaturan. Haur-literaturan adinaren arabera berezi ohi diren bezala, mende berriarekin batera antzeko zerbait egin da gazte-literaturan. Antzeko zerbait diot; izan ere, adinaren arabera ez ezik, irakurleen balizko interesen arabera ere eraiki dira bilduma berri asko. Horretan, Elkar argitaletxea paradigmaticoa da eta aipatu joeraren adibide bikaina da: batetik, Xaguxar bildumaren sail gorria (12 urtetik aurrera); bestetik, Taupadak bilduma, orobat DBH adineko irakurleentzat, hiru lerroekin (bizi-, izu-, bihotz-); azkenik, Ateko Bandan izeneko bilduma, adinez nagusitasunaren mugan dabilzantzat. Genero literarioen araberako bildumak egiteko joera ere abian da, hala nola, antzerkiari emandako bilduma oso bat, Erein argitaletxearen Antzoki Txikiaren kasuan bezala.



Beste alde batetik, inguruko HGLrekin homologatzeko ahaleginean, euskal argitaletxeek gero eta gehiago jotzen dute nazioarteko azoketara beste hizkuntza askotan argitaratutako liburuen eskubideen bila, batez ere gazte-literaturaren esparrukoena. Itzulpenak berehala agindu, eta ia aldi berean plazaratzen dira euskarazko itzulpen horiek eta gaztelaniazko edo katalanezkoak, konkurrentzia zuzenean sartu ahal izateko.

Literatura joerei dagokienez, badirudi berriz ere fantasiaren nagusitasun -aroan sartu garela, nahiz eta, kanonaren aldetik, oraindik errealismoa gehiago baloratzen den. Ematen du, bestalde, kanpotik eta *medietatik* etorritako joera dela hori: magia, banpiroak, zonbiak...

Irakurleen profilari buruz eta irakurleak bereganatzeko bideei buruz, badirudi Harry Potter- ez gero, aski frogatuta dagoela gure gazteak testu luzeak irakurtzeko gauza direla. Baina testu luzeak eta testu konplexuak ez dira sinonimoak, eta, konplexutasunaren aldetik, irudipena dut askotan errazkeriara jotzen dela irakurleak irabazi nahian. Baina hori da etorkizunerako inbertsio ona.



Kontuan hartuta HGL helduentzako literatura kanonikoa era kritikoan irakurtzera heltzeko bitartekorik aproposena dela, betiko formula besterik ez zait bururatzen irakurzaletasuna sustatzeko: aisialdian, nahi dutena irakur dezatela, liburutegiak eta norberaren gustuak lagun; baina eskolaren lana (eta hori askotan ahazten dute irakasle «enroilatu» askok) arestian aipatutako aldazio hori eraikitzen joatea da, testuen konplexutasun-maila pixkanaka goratuz. Irakasle asko, ordea, enroilatuak zein ez, erre samar egoteko adinera iritsiak dira zoritxarrez, eta ez dute gogorik edo indarririk lan horri ekiteko, ez eta horri buruzko etengabeko prestakuntzan parte hartzeko ere.

Euskal HGLren merkatuari dagokionez, askotan esan dudana errepikatu beharrean nago: hiperdimentsionatuta dago. Liburu gehiegi argitaratzen dira daukagun irakurleria potentziala kontuan hartuta. Oraindik lan txar gehiegi argiratatzen dira, euskal HGLren kaltetan. Hori esanda, gaineratu behar dut argialetxeen erabakia dela hori; nahiko garbia dirudi merkatu kuota jabetzea dela kontua; ordain gisa, ordea, gure irakurle gazte gehienak bahituak dira, eta aske dagoen gutxiengoa, berriz, nahastuta dago.

Lan egiteko esparruez ere galdetu didate; uste dut bigarren atalean zertxobait esan dudala horri buruz. Edonola ere, bibliotekek lanean jarraitu beharko lukete haien kanpainekin, noiz gaiak, noiz baloreak, noiz bestelakoak landuz, orain arte egin duten lana oso baliagarria izan baita.

Bestalde, irakasleen prestakuntza hobetu egin beharko litzateke, gradu mailan zein graduondokoa. EHUko Irakasleen-ikasketetako graduan, esa-

terako, badago «Eskola biblioteka eta irakurzaletasuna» izeneko *minorra* (laugarren mailako espezializazioa), eta gaiaren inguruko graduondo batzuk daude, Euskal Herrian, Katalunian eta Cuencan.

Etxea ere literatura lantzeko esparrua izan ohi da, baina nago ipuinak kontatzeko edo irakurtzeko ohitura galtzen ari dela, gure garai hauek hartu duten abiadaren erruz, guraso asko eta asko gaindituta eta nekatuta baitaude.

Liburudendak, azkenik, esparru galduak dira. Duela ez hainbeste ez bezala, liburudendari gehienek ezer gutxi dakite eskuartean daukatena buruz; merkataritza estrategien arabera lehenesten dituzte liburu jakin batzuk, eta estrategia horiek agintzen dutenean desagertarazten dituzte beste batzuk.

Eta etorkizunari begira zer egin daitekeen? Askokostata irabazi duen duintasun-apurrari eutsi behar dio HGLk. Erakutsi behar du «Haur-eta Gazte-Literatura» marka merezia dela eta ez estrategia komertzial hutsa. Kanpotik datorkigunaren aldean, bide propioak jorratu beharko genituzke, kanpoko merkatuari hainbeste begiratu gabe.

Adibidez, kontura gaitezen literatura orokorreko idazle ona izatea ez dela nahikoa HGL ona idazteko (alderantzizkoa ere ez, noski), nahiz eta amu hori erabilita bi mila ale gehiago saltzera iritsi.

Are toki handiagoa beharko genuke hedabideetan, idatzietan zein ikus-entzunezkoetan; informazio librea emateko eta kritika askea egin ahal izateko. Kritikaren arloa ere oso ondo zaindu behar da, eta, horretarako, bitartekariak egokienak direlakoan nago. Azken hauek, biblioteketan eta eskoletan lan hori haur-gazteei zein gurasoentzako egiten dabiltzanak ausartu beharko lirateke hedabideetara salto egitera; ondo prestatutako bigarren belaunaldia datorrela dirudi; orain, plazak behar dira.

Azkenik, bitartekariak prestatzen jarraitu behar dugu, etengabe. Gurasoak, garbi dago, urtero daudelako formazio beharra duten guraso berriak. Bibliotekari eta irakasleak ere bai, dagoeneko esan badut ere, ikuspegi propioak eta iritzi independenteak sortzeko, monopolioak hausteko.

En esta colaboración, Manu López Gaseni es preguntado sobre varios aspectos de la LIJ vasca. En primer lugar, señala que las editoriales vascas han diversificado sus colecciones, ajustándolas a segmentos de edad cada vez más específicos y diferenciándolas por temáticas. En segundo lugar, sostiene que, si bien el público lector ha demostrado suficiencia a la hora de enfrentarse a textos de gran extensión, le queda la asignatura pendiente de la complejidad textual, que parece rechazarse una y otra vez, tanto por parte de los lectores últimos como -lo que es más grave-, por la de los mediadores del sistema educativo. Con vistas al futuro cercano, propone formar con seriedad a una nueva generación de mediadores que se especialicen en LIJ y lectura en las etapas educativas obligatorias y en la crítica de LIJ, buscar nuevos espacios de visibilidad en los medios de comunicación y que los autores tomen conciencia de la singularidad de la LIJ vasca y se diferencien de los cánones más establecidos.

In this contribution Manu López-Gaseni is asked about various aspects of Basque LYCA. Firstly, he points out that Basque publishing houses have diversified their collections by adjusting them to age segments that are increasingly more specific, and by differentiating them according to subject matter. He goes on to insist that even if the reading public has displayed sufficiency when it comes to tackling long texts, the matter of text complexity is still pending, which appears to be rejected over and over again, not only by the most recent readers, but also by the intermediaries of the education system, which is a more serious matter. As far as the immediate future is concerned, he proposes that a new generation of intermediaries be properly trained as specialists in LYCA, in reading in the statutory education phases and in critique of LYCA; that new spaces for visibility be sought in the mass media; that authors be made aware of the uniqueness of Basque LYCA; and that they differentiate themselves from the established canon.

Translated by Sarah J. Turtle

Ez prospektibarik, ez prezeptibarik

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

Editorea-Idazlea



0

Haur- eta Gazte-Literaturaren etorkizunaz galdetu didate: nola aldatu den azken urteetan eta hurrengoetan zer etorriko den, batetik; bestetik, zer egin beharko litzatekeen bultzatzeko, hobetzeko, sakontzeko, irakurle gehiago lortzeko... Halako galderen aurrean, gero eta sarriago, Joxan Ormazabal zenaren pasadizo batez oroitzen naiz.

Duela zenbait urte, Mariasun Landak haur-literaturari buruzko mahai inguru batean hartu behar zuen parte Miarritzen, frantsesez. Han ere antzeko galderak planteatuko zitzaizkiela imajinatzen dut. Ormazabal, Landaren aspaldiko laguna, entzule joan zen mahai inguru horretara. Miarrizetik itzuli zenean, galdetu nion: «Eta? Zer moduz mahai ingurua?». Erantzuna, laburra bezain argia: *«Il faut*

gehiegi». (Frantsesez ulertzen ez duenarentzat: «*il faut*» hitzekin hasten dira zer egin behar den adierazteko esaldiak: gure «... egin behar da» edo «*hay que...*» gaztelaniazkoaren moduan).

Prospektiba zientzia den ala tabernako solas hutsa, eztabaida luzerako gaia da; nolana ere, ez daukat etorkizuna irakurtzen duen bolarik eta ez naiz hasiko ez dakidanaz kalakan. Prezeptibarako, berriz, gogo gutxi: inoiz izan banuen, honezkero galdu dut apaiz, pedagogo edo politikari bokazioa, inori zer egin behar duen esaten ibiltzeko.

Artikulu-eskaerari ezetz esatea zatekeen logikoena, beraz, baina *Behinola*-ko arduradunak esan eta esan aritu zaizkit; horrenbestez, aldizkariari diodan onginahiagatik eta berau egiten dutenei diedan errespetuagatik, zerbait kontatzen saiatuko naiz. Hori bai, historiaren errepasso arin bat egitera eta oraingo egoeraren itzal-argiak nabarmentzera mugatuko naiz, ahalik eta «*il faut*» gutxien erabiliz.

1

Aspaldi oso aspaldi, inork literatura hitza asmatu baino lehenago, ipuinak kontatzen ziren, gauzez sutondoan beharbada, gizon-emakumeak biribil batean bilduta, edo auskalo; ez dakigu nola, baina ia ziur gaude ipuinak kontatuko zizkietela elkarri, ondo pasatzeko, munduko misterioak esplikatzeko, jakin beharrekoak jakinarazteko, gazteak formatzeko, beldurra sentitzeko baina aldi berean, ipuinetako beldur horren bidez, beldur handiagoak uxatzeko...





Geroago asmatuko zituzten letrak (*littera*), eta hortik etorri zen Literatura delako berba ere, gaur egun nonahi eta noiznahi erabiltzen duguna: haur- eta gazte-literatura, helduen-literatura, ahozko literatura... inguruko guztiak aspertzeraino.

2

Euskal-haur-eta gazte-literaturaren hastapenen bila hasiko bagina, aztarna pila aurkituko genuke berehala, han-hemen sakabanatuta. Izan ere, ez al ziren neurri handi batean haurrentzat idatzi hainbeste katixima katoliko, Biblia santuko istorioen laburpen, otoitz-bilduma eta bizimodu zintzoa eramateko agindu-sorta? Adina gorabehera, gizarte osoa hartzen zuten haurtzat euskal filologiaren altxorra osatzen duten liburu horiek, hori ere egia da.

Jende xumea eta batik bat umeak leziatzeko helburu horretan bat datoz beste genero literarioki jasoago batzuk ere, adibidez alegiak, inguruko literaturetan bezala euskaraz ere oparo landu zena. Doktrinamendu erlijiosoa karikaturarako oso erraz erabiltzen badugu ere, helburu pedagogikoen eta literarioagoen arteko tenkan mugitu izan da HGL beti, baita gaur egun ere, ikaspen moralaren jantzia apur bat aldatu arren.

Modernizazio saio aipagarri bat Ixaka Lopez Mendizabal *Xabierto*-k ekarri zuen 1925ean, euskarazko eskolatzeari loturik, John Zabalo *Txiki*-ren marrazki ederrekin loturik. Kimu hura, baina, espainiar faxismoak errotik erauzi zuen 1936ko gerran, eta handik hogeita bost-hogeita hamar urtera ikastola berriak jaiotzen hasi zirenean, gerraurreko material zahar haietara jo behar izan zuten lehendabizi, pixkanaka testu eta metodo gaurkotuagoak egiten hasi ziren arren.

3

Euskarazko HGL moderno baten sorrera 1980 inguruan koka deza-kegu, hainbat alderdik bat egin baitzuten une berean:

–Edizio profesional eta jarraitu bat posible egingo duten lehen argi-taletxeak sortzen eta finkatzen dira.

–Argitaletxe horiek bai eskolarako materiala eta bai haur-literatura landu eta bultzatu zuten, baina bata bestetik bereizita, behingoz.

—Haur- literatura kalitatez eder eta kopuruz normal samarra sor-tuko zuen idazle belaunaldi bat azaldu zen, denak ere irakaskuntzatik zetozenak: Anjel Lertxundi, Mariasun Landa, Joxantonio Ormazabal, Pello Añorga. Horiekin batera plazaratu zen marrazkilari-sorta berria ere: Antton Olariaga, Jon Zabaleta, Jesus Lucas

–Euskaraz sortutako materialen ondoan, kanpoko haur- literatura ere modu sistematiko samarrean itzultzen eta argitaratzen hasi zen.

–Hori guztia ez zen posible izango (edo askoz makalago), Euskal Herriaren zati batean autonomia politikoa eta, horrekin batera, euska-raren ofizialtasun-maila bat lortu ez balira, euskararen irakaskuntzarekin batera.





4

Orain dela 30 urte pasatxo jarritako oinarri horiek beren fruituak eman dituzte, baina bitarte honetan bilakaera bat ere izan da, normala den bezala, hainbat alorretan:

–Argitaletxe berri gutxi sortu dira Euskal Herrian bertan, HGL lantzen dutenak. Aldiz, Espainiako hainbat argitaletzek bere adarrak zabaldu dituzte gure artean, batzuetan eskola-materialak kaleratzeko, besteetan haur- literatura, eta zenbaitetan biak.

–Edizio lanak errazago bihurtu dira aldaketa teknologikoei esker. Horrek egin du posible, beharbada, titulu kopurua asko igotzea, eta baita orain lehen baino errazago sartu ahal izatea kolorea, esaterako. Hala ere, titulu bakoitzetik saltzen den ale kopurua jaitsi egin da nabarmen, eta horrek zailtasun berriak erantsi ditu zenbait produktu mota kaleratzeko orduan. Edo, kaleratzekotan, itzulpena jotzen da halakoetan, eta ez sorkuntzara.

–Marrazkilari-belaunaldi berriak plazaratu dira, estilo eta joera askotakoak. Aldiz, idazleetan esan liteke, izen berri batzuk gehitu arren, ez dela sumatu halako belaunaldi-aldaketarik, ezta joeren berrikuntza nabarmenik ere.

–HGLren kritika eta ikerketa sortu da, komunikabideetan eta unibertsitateetan.

–Sozialki, euskararen irakaskuntzak aurrera egin du, baina kaleko erabilerak ez du maila berean gora egin, eta Euskal Herriaren naziotasun onarpenak traba handiak ditu oraindik.

5

Aldaketa hauek erakusten digute ahulgune handiak dituela egungo HGLk euskaraz. Ez ditut azpimarratuko, irakurleak berak aterako ditu

bere ondorioak. Geroak zer ekarriko digun? Auskalo. Hainbat faktorek baldintzatuko dute etorkizuna. Besteak beste, hauek:

–Aldaketa teknologikoak. Ez bakarrik liburuak nola gauzatu eta inprimatu erabakiko dutelako, aisialdiaren nondik norakoak ere horrexek bideratuko ditu, neurri handi batean.

–Kultur joeren aldaketa orokorrak.

–Eskola emateko modu berriek.

–Egoera ekonomikoak.

–Euskararen eta euskal-kulturaren prestigioak, dinamismoak, berrikuntzak...

–Euskal Herriaren estatus politikoak.

Horietan guztietan ezer gutxi daukagu esateko, edo nazioartean jokatzaren diren partidak direlako, edo kulturaren eremua gainditzen dutelako. Noski, guk ere geure alea erantsi beharko dugu. Eta gure esku dago, dudarik gabe, talentu handiko artisten sorrera, baita haiei antzematen eta beren gaitasuna garatzeko aukerak ematen jakitea ere.

6

Zalantzarik ez dudana da geroan ere jendeak ipuinak asmatzen eta kontatzen jarraituko duela. Ez dakit nolakoak izango diren ipuin horiek, ez ze kontestutan kontatuko diren, ez nork, ez ze euskarritan (ahoz, paperean, pantailan...), baina ia ziur gaude ipuinak kontatuko dizkiotela elkarri, ondo pasatzeko, munduko misterioak esplikatzeke, jakin beharrekoak jakinarazteke, gazteak formatzeko, beldurra sentitzeko baina aldi berean, ipuinetako beldur horren bidez, beldur handiagoak uxatzeko...

El autor comienza declarando su falta de preparación y nula disposición a practicar la prospectiva o la preceptiva, por lo que no aventura que ocurrirá en un futuro ni intenta decir a nadie qué es lo que se debería hacer.

A continuación hace un repaso de la Literatura Infantil y Juvenil en euskera: sus incipientes comienzos de la mano del adoctrinamiento religioso; un primer intento de modernización en el primer tercio del siglo XX abortado por el triunfo del fascismo español en la guerra del 36; y el renacer a mediados de los años ochenta.

Finalmente, muestra las luces y las sombras de la evolución de los últimos 30 años, en lo que respecta a autores e ilustradores, lectores y críticos, editoriales y otros actores y factores implicados en la LIJ.

The author starts by declaring his lack of preparation and zero willingness to engage in futurology or prescriptiveness, so he will not be hazarding any guesses as to what will happen in the future nor be trying to tell anyone what they should do.

He then goes on to provide an overview of Literature in Basque for Children and Young Adults: its embryonic beginnings linked to religious indoctrination; a first attempt at modernization during the first thirty years of the 20th century aborted by the triumph of Spanish fascism in the Spanish Civil War (1936-1939); and its rebirth halfway through the 1980s.

Finally, he shows the light and shade in the evolution over the last 30 years as regards authors and illustrators, readers and critics, publishers and other players and factors involved in LCYA.

Translated by Sarah J. Turtle

Aurrera egiteko kate begiak koipetu behar

LURDES AUZMENDI

Itzultzailea



Azken ia lau urte hauetan ez dut haur- eta gazte-literaturekin harreman handirik izan. Jaurlaritzatik Galtzagorri Elkartearekin elkarlanean landu ditugun proiektuetatik haratago joateko aukerarik ez dut izan, tarteka irakurtzen nituen liburuak salbu.

Ondorengo lerroetan esango dudana, beraz, lehendik ezagutu eta biziakoan oinarritu eta han-hemenka irakurri eta entzun dudana apurraren gaineko gogoeta besterik ez da.

Haur- eta Gazte-Literatura sendotuz joan da azken urte hauetan. Sendotuz sorkuntzaren aldetik, lehendik ari ziren idazleek izan dute aukera eta laguntza idazten eta argitaratzen jarraitzeko (Patxi Zubizarreta, Bernardo Atxaga, Maria-

sun Landa, Juan Kruz Igerabide...), eta hor dago hori erakusten duen produkzio oparoa. Idazle berriak ere sortzen joan dira, askotan sari eta laguntza-deialdiei esker (Mikel Zarate saria, Igartza Beka...), aurrekoek ereindako hazien fruitu. Eta argitaletxeek gogor jarraitu dute bildumak sortzen eta liburuak argitaratzen. Eta Galtzagorri Elkartearen lana ere oso garrantzitsua da sendotze-prozesu horretan. *Bularretik Mintzora* kanpaina, irakurzaletasuna bultzatzeko programak eta abar, horrek guztiak irakurle gazteei produktu onak eskuetan jartzen lagundu du, eta guraso eta irakasleen artean euskarazko haur- eta gazte-literaturari prestigioa ematen. Urte oso oparoak izan direla uste dut, eta egoera ekonomikoak ere dudarik gabe asko lagundu du horretan.

Hemendik aurrera, ordea, gauzak bestela izango direla uste dut. Krisiak eraginda, argitaletxeek askoz gehiago begiratu beharko dute zer eta zenbat argitaratu. Diru-laguntzak murriztu egingo dira elkarte, argitaletxe eta liburutegientzat, eta kasu batzuetan litekeena da sari eta antzekoak ere desagertzea. Neurri handi batean, diruz lagundutako alorra izan da gure hau, eta aurrera begira egokitzapen-prozesu batean sartu beharko da dudarik gabe.

Liburutegi zenbaitetan ari dira liburu-erosketarako diru-partidak mozten, eta nahikoa da apaletan mailegatzen diren liburu asko ikustea: zaharrak, hondatuak, zikinak... Hor ikusiko dugu benetan zein konpromiso politiko dagoen gure agintarien artean kulturaren alderdi hain garrantzitsu honekin, baina kulturari aurrekontuetan, oro har, egiten ari zaizkion mozketak kontuan izanda, nahiko garbi dago ez diela askorik





axola. Hemen eta orain inbertitzen ez dena biharko gizarteak nozituko du.

Haur- eta gazte-literaturaren irakurleen profila, haur- eta gazteen profila, alegia, ez dut uste asko aldatuko denik. Eta edozein kasutan, hori era nabarmenean gertatuko balitz, guraso eta irakasleen eraginez izango litzateke. Gerta liteke liburu elektronikoak ibilbiderik egiten badu gazteak ere horretara lerratzea, baina ez askoz gehiago.

Kanpotik datozen korronteei adi egoten jarraitu behar dugu, hori bai, eta arrakasta eta kalitatea uztartuko dituzten proiektuak aukeratzen asmatu. Euskaraz argitaratzen jarraitu behar da kanpotik etor daitekeen produkzio hori ona den neurrian; esan bezala, gazteen zaletasunari erantzun bai, baina maila guztietako kalitatearen baldintzak (literarioa, etikoa, eta abar) oso presente edukiaz.

Eta, agian, genero literarioen bati arreta handiagoa eskaini beharko litzaioke argitaletxeen aldetik, komikiari, adibidez. Albumak apurka gehiago argitaratzen dira, baina kontuan izanda oso mundu bisuala dela gaurko gazteak erakartzen dituen, uste dut haurrei eta gazteei oso erakargarriak egiten zaizkiela bi genero horiek. Euskaraz ez da asko sortzen, eta beste hizkuntzetatik ere ez dut ikusten asko argitaratzen denik.

Bestalde, oraindik badira gure HGLn zenbait gai tabu balira bezala tratatzen direnak, hondarrak balira bezala baino azaltzen ez direnak:

Heriotza, bere errealitate osoan.

Familia desegituratu edo guraso bakarrekoak.

Hezkuntza-sistemari kritika (ez umore klabean bakarrik, baita gaiak merezi duen seriotasun guztiarekin ere).

Sexu-gaiak oro har, homosexualitatea bezalakoak barne.


Tratu txarrak.

Haur eta gazteei beraien intereseko gaiak ere eskaintzen badizkiegu, arrazoi bat gehiago izango dute irakurketan sartzeko.

Haur eta gazteen artean, irakurtzeko zaletasuna garatzeko eta gehitzeko gauza asko egiten dira gure artean: *Bularretik mintzora* programa osoa, han-hemenka liburutegi publikoetan eratzen dituzten programak, administrazioek tarteka egiten dituzten azterketak eta kanpainak (diru-faltagatik, tamalez gero eta gutxiago), argitaletxeen aukeraketak...

Bestetik, Gipuzkoako *Liburu gaztea* programa edo antzeko bat beste lurraldeetara zabaldu beharko litzateke luze baino lehen. Lurralde horretan argitaletxeen eta Galtzagorri Elkartearen artean egiten denak erakutsia du aspaldi bere eragin bikaina, irakurleentzat, idazle eta itzultzaileentzat, eta baita argitaletxeentzat ere. Frantzian argitaletxeek bakarrik antolatzen dute urtero antzeko bat. «*Les incorruptibles*» du izena. 20 liburuko zerrenda bat osatzen dute eta ikasleek horietatik 7 irakurri behar dituzte (hauek irakasleak aukeratuak dira). Zazpi horietatik bat bozkutzen dute, gure sisteman bezala. Eta argitaletxeek, besteak beste, idazleak sustatzeko bide bezala erabiltzen dute lehiaketa hori.

HGLko irakurzaletasuna sustatzeko egiten diren lanen artean, azkenik, beste bat gehitu nahi dut: *Klis-Klasikoak* bilduma. Luzez askok amestutako proiektua da, eta helduentzako literaturaren kasuan *Literatura unibertsala* bildumarekin egin den bezala, jarraikortasuna eduki beharko luke. Haur- eta gazte-literaturako euskarazko altxorra osatzeko dago, eta poliki-poliki bada ere hasita dagoenez gero, pena litzateke aukera hori galtzea. Galtzagorrik bildumarekin jarraitzeko adinako laguntza izango ote du Jaurlaritzatik!





Badaukagu nondik tiratu eta jarraitu, baina uste dut sistema honetan badaukagula hanka bat nahiko ahula, eta hori hezkuntza da.

Eskoletatik ez zaie haur eta gazteei behar adina bultzatzen irakurtzera, bultzatu diot, matematikak eta beste ikasgaiak bezala irakurketak ere heziketa eskatzen duelako. Gure hezkuntza-sistemak jabetu behar du irakurketak haur eta gazteen heziketan paper oso garrantzitsua jokatu behar duela, eta sistemaz ari naiz, erabakiak goitik eta guztientzat hartu behar direlako eragingarriak izango badira.

Gaur egun, irakaskuntzan jarraitzen den bidetik zaila da irakurtzeko zaletasuna piztea. Irakurtzeko zaletasuna berez dakarten ume eta gazte-txoek gutxi behar dute zaletzeko, edo gurasoek lagundurik zaletasun hori lantzen dutenek izango dute aukera. Eta horiek, agian, oso zaleak izango dira. Literaturak irekitzen dituen paradisu-rako atea horiek zeharkatuko dituzte, baina paradisu-an gutxiengo bat sartuko da. Eta aukera hori haur eta gazte guztiei eman beharko litzaieke.

Orain gutxi, Bartzelonako lizeo frantsesean ikasten duen mutiko batekin hizketan, irakurritako liburu batzuk erakutsi zizkidan. Ramonek 10 urte

ditu, eta ikasturte honetan irakurtzeko daukan liburu-zerrenda osoa ekarri zidan, gaiarekiko nire interesaz ohartu zenean.

Frantziako Hezkuntza Ministerioak «Contrat de lecture» deitutako zerrenda bat osatu eta argitaratzen du urtero hezkuntzako ziklo eta maila bakoitzerako. Ikastetxe publiko guztietan erabiltzen dute zerrenda hori. Ramonen kasuan 21 liburu irakurri behar ditu 2012-2013 ikasturtean, eta zerrenda honela banatuta dago:

Literatur-genero guztiak daude: 14 albumatik 5 aukeratu eta irakurri behar ditu; 9 komikitik, 4; 11 ipuin- eta fabula-liburutik, 3; 5 poema-liburutik, 1 irakurri behar du; 29 eleberri eta kontakizun irudizatutik 7, eta, azkenik, bost antzerki lanetik 1. Liburu batzuk laburrak dira, beste batzuk luzeak.

Zailtasun-maila ere sailkatua ageri da zerrendan: liburu bakoitzak 1, 2 edo 3 kodea edo tarteko zailtasun-maila ere adierazten du: 1-2, 2-3, 1-3..., errazetik zailagora. Adibidez, poesian, Paul Verlain-en *Choix de poèmes*-ek 1 zailtasun-maila dauka, txikia, beraz; antzerkian, Ahmed Madami-ren *Il faut tuer Sammy*-k 2 zailtasun-maila; Christian Grenier-en *Le tyran le luthier et le temps*-ek 3, eta abar. Idazle klasikoak eta garaikideak, denetik dago tartean: Perrault, Esopo, Grimm anaiak, Kipling, Yourcenar, St Exupéry, eta abar.

Liburu guztiak frantsesez daude, hori bai, baina Frantziatz ari gara, noski, badakigu beste hizkuntzekiko nolako jokamoldea duten. Uste dut hezkuntza eleaniztunek irakurketetan ere isla eduki beharko lukeela, eta gure kasuan, adibidez, elebitasun-maila bederen oso kontuan hartzekoa litzateke. Eta liburu gehienak jatorrizkoak dira, baina itzulpenak ere asko dira, nagusiki ingelesetik, alemanetik, eta gaztelaniatik itzuliak.

Irakurtzen duten liburu bakoitzaren laburpen bat egin behar dute, eta Ramonek, liburu bakoitzeko 10 bat lerroko laburpenarekin batera, marraztea asko gustatzen zaionez gero, marrazki bat egiten dio laburpen bakoitzari. Irakasleak ikasturte-amaieran ikusten du ikasle bakoitzak zer lan egin duen eta lan hori ebaluatzen du.

Esan bezala, Hezkuntza Ministerioaren erabakia da hori, eta ikastetxe publiko guztiak daude betetzera behartuta. Zergatik ezin da gure hezkuntza-sisteman horrelakorik egin? Zerrenda osatzeko aholkulari onik ez litzaioke faltako gure hezkuntza sailari: Galtzagorri Elkartek eta argitaletxeek ikastetxeekin eta irakasleekin elkarlanean erabakiko lukete liburu-zerrenda. Eta, gero, ikastetxeetako eta kanpoko liburutegi publikoak ongi hornituta edukitzea litzateke kontua. Modu bikaina dudarik gabe, besteak beste-gure haur eta gazteak aukera berdintasunaren bidean hezitzeko, guztiek izan dezaten irakurtzera zaletzeko eta horrekin gozatzeko eta hezitzeko aukera.





Beste gauza askotan bezala, uste dut honetan ere sekreturik ez dagoela. Esperientzia onak badira eta toki askotan daude, baita gurean ere. Dauzkagun on horiek sendotu eta berriak gurera egokituz indarrean jarri behar ditugu.

Hasieran esaten nuen azken urte hauetan oso harreman txikia izan dudala haur- eta gazte-literaturarekin. Nire lanbidera itzuli naizenean, ordea, erabat gogoberrituta ekin diot itzulpen-lanari, eta kargu politikoa utzi zain nengoela hasi nintzen gaztetzozentzako lehen liburua itzultzen. Espero dut, era guztietako krisiak krisi, euskaraz irakurri nahi eta behar duten haur eta gazteentzako aukera ugari eta onak sortzen jarraitzeko lanetan parte hartzeko aukera izatea, nire kasuan itzulpenaren bidez. Idazleak, itzultzaileak, argialetxeak, irakurleak, irakasleak, liburuzainak, gurasoak, hezkuntzako arduradunak eta elkarteak; katea luzea da, eta katebegiek ongi koipetuta egon behar dute elkarren arteko igurtzietatik aterako den soinua ederra eta gozoa izan dadin.

La literatura infantil y juvenil en lengua vasca ha ido consolidándose durante los últimos años. Los escritores más veteranos como Mariasun Landa, Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide, etc. están muy consolidados; los distintos concursos literarios han ido dando a conocer a otros nuevos escritores que el tiempo dirá si se afianzan, y el mundo editorial ha conocido tiempos de bonanza. La asociación Galtzagorri actúa como motor de todo el engranaje. Pero la crisis económica está seriamente amenazando los cimientos de todo este engranaje, y la falta de ayudas públicas obligará a realizar reestructuraciones importantes.

Pero hay que seguir produciendo y publicando si queremos que tanto hoy como en el futuro la literatura en general y la vasca en particular siga siendo fuente de gozo y motor indispensable para la promoción y el uso del euskera. Para ello, el sistema educativo tiene que replantearse la necesidad de inculcar la afición y el gusto por la literatura entre los estudiantes con mayor vigor que el que viene realizando.

Literature in the Basque language for children and young adults has been consolidating over recent years. The most veteran writers like Mariasun Landa, Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide and others are very well established; the various literary competitions have been making other new writers known, and time will tell whether they, too, will become established, the publishing world has known buoyant economic times. The Galtzagorri association acts as the motor for the whole mechanism. But the economic crisis is seriously threatening the core of this whole mechanism, and the lack of public grants will require significant restructuring to be made.

But we have to go on producing and publishing if we want literature in general and Basque literature in particular to go on being a source of enjoyment and the indispensable motor for encouraging and using Basque, today as well as in the future. So the education system has to take another look at the need to instil, with greater impetus than it has been doing so far, a passion and taste for literature among students.

Translated by Sarah J. Turtle